



Espediente zk./Nº Expediente: 2020SZUZ0025 **Erreg. data/Fecha Reg:**2020/05/05
Erreg. zk. / Nº Registro: 006205
Gaia/Asunto: 2020 urteko Dirulaguntza zuzena DON BOSCO - HITZARMENA
Eskatzailea/Solicitante: CIFP DON BOSCO LHII (EJ-GV) **NAN(IFK)/DNI(NIF):** S4833001C
Kokalekua/Emplazamiento: SAN MARKO KALEA SN, (Don Bosco)

ZUZENeko DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Errenteria, 2020ko uztailaren 15a

BILDU DIRA:

Batetik, Itziar Ostolaza Galdos, Errenteriako Udaleko Hezkuntza Zinegotzi Delegatu gisa.

Bestetik, Juan Carlos Lizarbe de Luis jauna, NAN 15.966.270-S zkia. duena, eta helbidea San Marko errepidea z/g.

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak Errenteriako Udalaren izenean, Alkateak 2019ko ekainaren 17an Dekretuaren bidez emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta.

Bigarrenak Don Bosco Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuaren izenean eta ordezkartzan, IFK S4833001C zkia. duena, eta helbidea San Marko errepidea z/g.

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

AZALTZEN DUTE:

I.- Errenteriako Udalak Don Bosco LHIIrekin kolaboratu izan du hezkuntza eta teknologia proiektuak ezartzeko orduan. Proiektuok gaurkotasuna duten gaiekin lotuta daude, eta gazteek prestakuntza eta informazioa jaso dezaten dute helburu.

II.- Azken urteetan, Don Bosco LHIIk bere ikasleen osoko prestakuntzan laguntzen duten programak eta proiektuak sortu ditu, eskualdearen garapen teknologikoan ekarpena eginez.

III.- Bi aldeak interesaturik daude prestakuntza eta informazio hori ikasleengana heltzeko bidea errazten eta eskualdean zein inguruetan zehar hedada dadin.

IV.- Errenteriako Udala eta Don Bosco LHIIren arteko lankidetzaren hitzarmen honen arabera, Don Bosco LHIIk, besteak beste, ondorengo proiektuak gauzatu ditu:

- "DENOK BATERA" ALDIZKARIA ETA NEWLETTER
- IBILGAILU KLASIKOEN RALLY
- URA BASAMORTUAN 2020



- Bestelakoak, aldez aurretik Udalarari jakinarazita.

2020 urterako aurkeztutako gastuen aurrekontua 16.935,00 eurokoa da guztira.

V.- Hezkuntza Zinegotzi Delegatuaren Dekretuaren bidez, 2020ko uztailaren 14koa, erabaki da Don Bosco LHlri ematea zuzeneko dirulaguntza nominatiboa Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

→ Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-.

→ Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-.

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Don Bosco LHlri erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen konpromisoak dirulaguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK:

Lehengoa: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, Hezkuntza Zinegotzi Delegatuaren dekretuaren bidez, 2020ko uztailaren 14koa, emaniko dirulaguntzarekiko. Dirulaguntza horren xedea da hitzarmenean jasotako proiektuak finantzatzea.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 4.000,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 1.0630.412.01.326.20 (7462): Dirulaguntza DON BOSCO LHlI partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2020 urterako.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Lankidetzat hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da.

Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Don Bosco LHlri 4.000,00 euroko dirulaguntza ordainduko zaio, eta era honetan:

%80, 3.200,00 euro, hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.

%20, 800,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.



Bosgarrena: Dirulaguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki dirulaguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Hitzarmenean jasotako proiektuak garatuko ditu, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

Proiektuan aurreikusitako jardueraren bat ezin bada egikaritu ez datorrelako bat COVID19arekin kutsatzeak ekiditeko indarrean dagoen araudiarekin, onuradunak jarduera araudi horretara egokitu beharko du edo atzeratu. Ezin izatekotan, jarduera ez da gauzatuko.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Dirulaguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

d) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

e) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatziari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharra, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz (testuan



lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin alde aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharra eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki hurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

f) Berdintasunerako klausula: Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatze edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

g) Ingurumenaren alorreko klausula: Dirulaguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklatu-rikko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

h) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irriti, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren lankidetzara, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarria Errenteriako Udala denean, hala nola babes beste laguntzaile batzuekin



banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

i) Bete beharko da une oro indarrean dagoen araudia, COVID19arekin kutsatzeak ekidite aldera. Araudi hori era zorrotzean bete beharko da bai ekitaldi publikoetan, baita bileretan edo publikoarentzat irekiak ez diren jardueretan ere.

Seigarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa

Errenteriako Udalak, Hezkuntza azpisaileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen, Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

COVID19arekin kutsatzeak ekidite aldera, proiektuan aurreikusitako jardueraren bat ezin izan bada gauzatu edo egokitu beharra egon bada, memorian horrela azalduko da, erabaki horren arrazoiak zehaztuz.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, dirulaguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Dirulaguntza jasotzen duen entitate hartzaileak, memoriaz gain, aurkeztu beharko du CD bat programaren eta jardueren argazkiekin (argazki bakoitzari zein jarduera edo programa dagokion adierazi beharko da), hala nola hedapenerako erabiliriko euskarri guztiak.

Justifikazioan sartu ahal izango dira elkarte onuradunaren egituraren mantenuko gastuak (zeharkako gastuak) giza baliabideen gastuak barne.

Pertsonal gastuak dira salarioari lotutakoak (IRPF delakoari dagokion atxikipena barne) eta soldata gastu hauei dagokien Segurtasun Sozialaren enpresa kuota. Hau honela izanik, berezko pertsonalaren nominak atxikitu beharko dira, dagozkien justifikanteekin batera eta IRPF atxikipenei lotutako diru sarrera baieztatzen duten agiriak. Baita kotizazio likidazioaren erreziboa (RLC delakoa) eta langileriaren izen-abizenen zerrenda.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste dirulaguntza publikoekin

Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate



onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo dirulaguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek dirulaguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea

Dirulaguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarriko epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Jardueraren aldaketa edo atzeratzea COVID19arekin kutsatzea ekiditea asmo duen araudiaren ondorio izatekotan, nahikoa izango da erabakia posta elektronikoz dirulaguntza eman duen udal sailari jakinaraztearekin, seigarren klausulan jasotakoa kontuan izan behar bada ere.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arazoak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Hamargarrena: datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarriko betetzea.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.



Hamabigarrena: Araubide Juridikoa


Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

<p>ERRETERIAKO UDALEKO HEZKUNTZA ZINEGOTZI DELEGATUA</p> <p>Stua.: Itziar OSTOLAZA GALDOS</p>	<p>DON BOSCO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUKO ZUZENDARIA</p>  <p>Stua.: Juan Carlos LIZARBE DE LUIS</p>
--	--



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

2020

Titulua / Titulo:

2020SZUZ0025-HITZARMENA/CONVENIO

Data / Fecha: 2020/07/17 10:00:17

Sinatzailea 1 / Firmante 1: ITZIAR OSTOLAZA GALDOS - 72516318D

